

OARSO

2025



ERRETERIA



MUSIKASTE 2025

Errenteria, Euskal Herriko musika-sorkuntza eta interpretazioaren erdigune bihurtuta

Egilea: Pello Leïñena

Argazkiak: Maialen Andrés

MUSIKASTE - Euskal Musikaren Asteak bere 53. edizioa ospatu du 2025ean, gazte abesbatzen eta dantzaren jarduna agerian jarrita, emakume konpositoreen lanen estreinaldiak sustatuz eta obra ezezagunak berriz plazaratuz.

Hori guztia gauzatzeko funtsezkoak izan dira erakundeak, enpresak eta, batez ere, urtez urte kontzertuetara bertaratzeko diren Errenteriako herritarren konplizitatea.

Lekuona Fabrika eta Niessen Aretoa izan dira agertoki nagusiak, eta haien baliabide tekniko eta logistikoez ahalbidetu dute hamar kontzertuen antolaketa, aurreko edizioetako ikusle kopuruari eutsiz.

Maiatzak 16, ostirala Bizitzaren harian

2025eko Musikastek Lekuona Fabrikan hasi zuen bere ibilbidea, "Bizitzaren harian" izeneko kontzertu sinfonikoarekin. Iruneko Oiasso Kameratak, Imanol Elizasuk zuzendutako Zariatxo-Zariagaz abesbatzak eta Marina Beheretche biolin-jotzaileak programa zabala eskaini zuten. Bertan uztartu ziren euskal konpositore klasikoek lanak —Jesús Guridi, Francisco Escudero, Carmelo Bernaola— eta Iparraldeko sortzaile gazteen lan berrien estreinaldiak, hala nola Ekhi Lambert-en "Itzuliño bat" eta "Pasabidea", edo Elodie Baffalio-ren "Iazko lorea".





Maiatzak 17, larunbata Ubun-tu – Dantzagunea

Dantzaz konpainiak, Fernando Sáenz de Ugarteren zuzendaritzapean, eta Landarbaso abesbatzak "Ubun-tu" ikuskizuna aurkeztu zuten Lekuona Fabrikan. 'Ubun-tu' afrikar adierazpena da, komunitatea eta gizatasuna berreskuratzearen aldekoa. Bi koreografia aurkeztu ziren: "Aire Sakona", Jacek Przybylowicz poloniarrena, euskal kulturako elementuak —bertsolaritza, arraunketa— ardatz hartuta; eta "Eres", Martín Inthamoussú uruguaiarraren lana, emigrazioaren esperientzian oinarritua eta musika korala zein dantza uztartzen dituena.





Dantza konpainia eta Landarbaso Abesbatza "Eres" ikuskizunean

Maiatzak 18, igandea Igandeko jardunaldia

Musika erlijiosoa: Ana Belén Garcíaren organoaren soinuak eta Andra Mari abesbatzaren ahotsak protagonista izan ziren Jasokundeko Andre Mariaren Elizako kontzertuan. XX. mendeko euskal organo eskolaren ibilbidea errespasatu da Luis Urteaga, José Sainz Basabe eta José María Beobideren obrekin, Eduardo Mocoeroaren "Misa Pastoral" lanarekin amaituz.



Ana Belén García organoan
eta Andra Mari Abesbatza



Michel Labéguiereren omenaldia: Errenteriako Udal Txistularien Bandak Niessen Kulturgunean Michel Labéguerie omendu zuen, Herri Arte Eskolaren eta Iparraldeko musika ikasleen arteko elkarlari esker. Bertan, Labéguiereren eta Inchausti eta Ansorenaren lanak eskaini ziren, Peyo Labéguerie kantariaren partaidetzarekin.



Peyo Labeguerie, Herri Arte Eskolaren eta Iparraldeko musika eskolako ikasleak



Errenteriako Udal Txistulari Taldea



Musika Banda: Errenteriako Musika Bandak 12:45ean kontzertua eskaini zuen Koldo Mitxelena Ikastetxeko estalpean. José Franco, Eleuterio García, Jesús Guridi eta Benito Lertxundiaren lanekin batera, Pello eta Martin Irizar beasaindarren lanak interpretatu zituzten, familiak berriki Eresbilen utzi dituenak.



Errenteriako Banda



Aitor Mitxelena eta Errenteriako Banda



“Amalurra” musikalean, Kontari Landarbasok, Maddalen Dorronsororen zuzendaritzapean, Errenteriako ikastetxeetako ikasleen ahotsak batu zituen eta eszenaratzearekiko beldurra gainditzen lagundu zien. Orereta Ikastola, Koldo Mitxelena Ikastetxea, Bizarain Ikastola eta Cristobal Gamon Ikastetxeko ikasleen ahotsak urte-sasoei lotutako erritmoen bidez elkartu ziren.



Kontari Landarbaso abesbatza

Maiatzak 21-22 Kontzertu pedagogikoak

Errenteriako ikastetxeetako ikasleek Mozart Nannerl eta lagunak izeneko emanaldiaz gozatu zuten. Mónica Torres aktoreak eta Euskadiko Orkestrako kideek Wolfgang Amadeus Mozarten arreba izan zen Marianne “Nannerl” Mozart-en irudia berreskuratu zuten, musikaren historian emakumeek izan duten lekua nabarmentzeko.



Mozart, Nannerl eta Lagunak kontzertu didaktikoa



Maiatzak 21, asteazkena Musika garaikidea

ESAS Camerata (Emakume Sortzaile Artisten Sarea), emakumeen lanak sortu, interpretatu eta zabaltzen duen erakundea, Niessen Kulturguneko oholtzara igo zen "Dance of change" izeneko proiektuarekin. Haizea Huegoenek eta Bea Andrések sortutako lan honetan, musika sinfonikoa eta elektronikoa uztartu ziren, emakume talde baten emozioak, sentsazioak eta energiak jasoz, nork bere burua ezagutzeko eta beren potentziala azalertzeko helburuarekin.



ESAS Camerata (Emakume Sortzaile Artisten Sarea)



Maiatzak 22, osteguna Juan Mari Beltranen omenaldia

Bere ibilbideagatik eta herri musikan egindako ekarriagatik berriki Manuel Lekuona Saria jaso duen Juan Mari Beltrani omenaldia egin zitzaion Niessen Kulturgunean. Musikari eta ikertzaileak bere erreperitorioaren zati bat plazaratu zuten, eta herri musikako tresna ugari jotzeko duen gaitasun aparta erakutsi zuten, bakarlari instrumentalekin, Herri Arte Eskolako alboka taldearekin eta Hernaniko udal txistulariekin batera.



Juan Mari Beltranen omenaldia



Maiatzak 23, ostirala Koruen eguna

Euskal Herriko gazte abesbatzak izan ziren ostiraleko kontzertuaren protagonistak Lekuona Fabrikari. Landarbasoko Dizkizka (Errenteria), Kantakai (Lekeitio), Iga (Irun) eta Euseria (Bilbo) abesbatzen ahotsek programa aberats eta era askotakoa eskaini zuten, Maddalen Dorronsoro, Xabier Sarasola, Junkal Guerrero, Iñaki Tolaretxipi, Xabier Lete, Luis Aranburu eta José Antonio de Donostiaren lanekin. Musikaren bidez, gure herriko jarduera korralaren etorkizunari omenaldi ederra egin zioten, elkarren artean banatu eta hazteko aukera emanez.



Landarbasoko
Dizkizka Abesbatza
Koruen egunean

Kantakai Korala



Maiatzak 24, larunbata Amaierako kontzertua

Euskadiko Orkestra, Diego Martín zuzendari zuela, eta Andra Mari abesbatza izan ziren Musikaste edizio honen itxiera egiteko arduradunak. Kontzertuak garai eta estilo desberdinetako lanak bildu zituen: Eduardo Mocoaren Leidor operak inspiratutako piezak jo ostean, Carlos Basurkoren lan berriak aurkeztu zituzten, zinematografiako efektuz eta hizkuntza berritzailearekin, eta ondoren Gabriel Loidiren "El caballero y el dragón" mugimendu sinfonikoa. Azkenik, Jesús Guridiren "Mirentxu" operako hiru eszena eskaini zituzten, melodia berrien edertasuna Santa Ageda bezalako klasikoekin uztartuz.



Euskadiko Orkestra
eta Diego Martín
zuzendaria



Euskadiko Orkestra, Andra Mari Abesbatza,
eta Diego Martín zuzendaria

Musikaste 2026

Dagoeneko gogoz ekin diogu 2026ko Musikasteren egitaraua prestatzeari. Hurrengo ediziorako jarritako ildoak honakoak dira, besteak beste: Juan Crisóstomo Arriagaren heriotzaren berrehungarren urteurrena ospatzea, abesbatzen jarduera bultzatzea, musika garaikidearen bide eta estetika berriak aurkeztea, dantza sustatzea eta emakume konpositoreen obren estreinaldiak babestea.

ERESBIL

50 urte musika-ondarearen zerbitzura

Pello Leiñena

2024an, Eresbil —Euskal Musika Artxiboa— bere 50. urteurrena ospatu zuen, euskal musika-ondarea babesteko erreferente nagusi gisa. José Luis Ansorenak 1974an sortu zuen, eta gaur egun ere helburua argi dauka: Euskal Herrian sortutako edo euskal kultura-esparrura lotutako musika-sorkuntza biltzea, kontserbatzea eta balioan jartzea.

Eresbilen sorreraren 50. urteurrenaren ospakizunari eskainitako liburua argitaratu eta publikoki aurkeztu izanak Eresbili aukera eman dio bere jarduerari ikusgarritasuna emateko, irakurle askok adierazi duten bezala.

Mugarri horrek etorkizuneko erronkei aurre egiteko pizgarria izan behar du. Digitalizazio-prozesuan eragitea eta adimen artifizialeko tresna berriei ekitea, prozesuak optimizatzeke eta emaitzak lortzeko aukera gisa.

Argitalpenaren ale bat eskatu nahi dutenek Eresbilera gerturatu daitezke edo esteka honetatik deskargatu dezakete:

<https://www.eresbil.eus/sites/publicaciones/es/>

Eresbilek, Errenteriako hiriguneko ikusgarritasuna indartu eta kokapena errazteko helburuarekin, 2024an errotulo berri bat jarri du fatxadan. Kale nagusitik ikusgai den puntu batean kokatua dago.

La iniciativa responde a una estrategia de apertura institucional: acercarse más al público general, favorecer el acceso de visitantes y dar a conocer el trabajo diario que realiza el archivo. El diseño del rótulo combina modernidad y sobriedad, y simboliza la voluntad de Eresbil de no permanecer como un espacio cerrado, sino como una institución viva, accesible y abierta a toda la ciudadanía.

Funts eta artxibo berriak

2024ko martxoaren 21ean jaso genuen Vicente Ereñaren funtsa; bera izan zen Donostiako Artzain Onaren plazan egondako Ereña liburu-dendaren jabea. Funtsak 240 pianola-biribilki eta partitura-bilduma biltzen ditu. Nabarmentzekoak dira euskal musikarekin




Eresbil-libro



Eresbil, fachada

lotutako biribilkiak, besteen artean, honako egileen lanak jasotze dituztenak: Bartolomé de Ercilla, Jesús Guridi, Joaquín Larregla, Basilio Miranda, Antonio Peña y Goñi, Juan Tellería, Torre Muzquizeko kondea, Cleto Zabala eta Dámaso Zabalza.



Fondo Juan Padrosa

2024an jasotako beste funts garrantzitsu bat Juan Padrosarena da, Donostiako Kontserbatorioan piano-irakasle izan zena 1963tik aurrera, piano katedra eskuratu ostean. Bere dokumentazio profesionala eta didaktikoa, musika-liburutegia eta partiturak jaso dira.

Azkenik, Roge Blascoren funtsa ere jaso dugu. Funts honetan 1950 -1990 hamarkadetako euskal musikariei egindako elkarriketak jasotzen dira.



Roge Blasco



Digitalizazio eta kolaborazio proiektuak

Eresbilen edukien digitalizazio eta zabalkunderako prozesua Euskariana atari digitalaren bitartez gauzatu ahal izan da, Eusko Jaurlaritzak gidatua.

<https://www.euskariana.euskadi.eus/euskadibib/eu/home/home.do>

Digitalizazio horrek hainbat egitasmotan lagundu du, hala nola “La Marsellesa de los Borrachos” film dokumentalaren estreinaldian —Pablo Gil Rituertok zuzendua—. Eresbilek Aiert Beobide eta Manu Gaignerekin kolaboratu du Herri Gogoa diskoetxearen grabazioak erraztuz. Halaber, Jone San Martinen koreografia-dantza proiektuan lagundu du, baita Jesus Guridiren “Mari-Eli” partituraren transkripzioaren bidez ere, Eresbilek berak eginikoa. Azken hau apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean estreinatu zen Arriaga Antzokian, Calixto Bieitoren ekoizpenarekin.



“La Marsellesa de los Borrachos”



“Mari-Eli”



"Kaierak". Gabriel Erkoreka

Beste argitalpen batzuk lankidetzan

2024an, Eresbil eta Musikeneren arteko lankidetzari esker, "Kaierak" bildumaren baitan Gabriel Erkorekari eskainitako katalogoa argitaratu da, eta Zuriñe Fdez. Gerenabarrenari eskainiko zaion hurrengo katalogoa prestatzen ari gara.

Difusio eta formazio ekintzak

2024an, musika-ondarearen egungo eta etorkizuneko egoerari buruzko hausnarketa eta pres-takuntzari buruzko hainbat jarduera garatu dira:

- "Streaming bidezko musika" udako ikastaroa (EHU, Donostia, uztailak 17-18): Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean antolatua, plataformek musikaren industrian duten eragina eta soinu-ondarearen kontserbazio digitalean agertzen diren erronka berriak aztertu zituen. Akademikoez, artxibo teknikariek, musikariek eta industria profesionalak parte hartu zuten.
- Euskal Herriko herri-kantutegiari buruzko jardunaldiak (Musikene, urriak 18): diziplina anitzeko topaketa, Musikene eta Soinuenearekin elkarlanean, euskal kantutegi tradizionalaren egokitasuna eta gaur egungo sorkuntzan duen rola aztertze-ko. Bilduma, edizioa, pedagogia eta egungo erreperitorioan duen presentzia landu ziren.



Zuriñe F. Gerenabarrena

Dantza dokumentazioa

Hiru izango dira Eresbilek dantzaren alde egin dituen ekintzarik nabarmenenak: bilduma propioa handitzea, liburuak eta aldizkariak erosita; dantza tradizionalari eskainitako bideoak digitalizatzea eta azkenik, artxiboak "Atalak" proiektuan parte hartzea, sorkuntza-prozesuaren tratamendu dokumentalari buruzkoa.



Nabarmentzekoa da dantza tradizionalari eskainitako webgunea, non Emilio Xabier Dueñas etnologoak, alor honetako ikertzaile eta adituak, parte hartu duen.

<https://www.eresbil.eus/sites/dantzartxiboa/eu/>

Era berean, urtean zehar Artik proiektuaren hainbat saio garatu dira, proiektu koreografikoak partekatzeari eskainitakoa.

2024 – Euskal Musikagileak – Euskal musikagileen partiturak

2024an euskal musikagileen 486 partitura erregistratu dira. Horri esker, Eresbileko partitura-funtsak 41.167 erregistro biltzen ditu


Nabarmentzekoa da hainbat argitaletxeren lanen eskurapena, hala nola CMC Garaikideak (Musikagileak), OE Ediciones (Donostia), Euskal Herriko Txistulari Elkarte, Orpheus (Madril), CM Ediciones Musicales (Bilbo) eta Arakil Fundazioa. Jaso diren lanen artean, besteak beste, Yolanda Campos, Ignacio Fernández, Junkal Guerrero, Jesús Guridi eta Félix Ibarrendoren obrak daude.



Antolatzaileak Organizan




Artik



EUSKAL MUSIKA - PARTITURAK

Euskal musikariek edo/eta Euskal Herriarekin lotura duten musika-lanak.



Dokumentazio eskaerak



Genero eragina



Genero eragina

Eresbilek emandako zerbitzuak

2024an, esan dezakegu eskaera kopurua handitu egin dela, 921 kontsulta egin baitira. Arreta telematikoa gero eta ohikoagoa da gure jardueran, eta etorkizunean handitu egingo dela uste dugu.

Erabiltzaileen % 51,68k posta elektronikoz izapidetu zituzten eskaerak eta % 34,42k aretoan.

Besteak beste, nabarmentzekoak dira Musikene eta Gironako Unibertsitateko master ikasleen bisitak, Eragin kultura elkartearena eta Baionako Kontserbatorioko ikasleena.

Eresbileko ekintzetan genero eragina

2024an, Eresbilek musika eta dantza arloetako emakume interprete eta sortzaileei buruzko 31 dossier osatu ditu, horien dokumentazioarekin batera.

Musikastek, 52. edizioan, 5 euskal emakume musikagileren lanak programatu zituen: Idoia Hernández, Zuriñe Fdez. Gerenabarrena, María Eugenia Luc, Eva Ugalde eta Itziar Viloria, eta 8 emakumezko bakarlari izan zituen, beste hainbat emakumek ere parte hartu zutelarik ganbera talde eta bestelako taldeetan.

Ondorioak

2024 urtea, zalantzarik gabe, bide-aldaketa handia izan da Eresbilentzat. Bere 50. urteurrena ez da ekitaldi sinboliko hutsa izan; Erretereria kultura-esparruan kokatzeko aukera izan da, bere eredia eguneratu, bere ikusgarritasuna indartu eta euskal musika-ondarearen zaindari gisa duen rola berretsi duelarik.

Digitalizazio, ikusgarritasun, zabalkunde eta argitalpen arloetan lan-ildo berriekin, Eresbilek etorkizunari begiratzen dio ibilbide argi batekin: Euskal Herriko musika-ondarea bizirik mantentzea eta gaurko zein etorkizuneko belaunaldientzat irisgarria egitea.